

## **Haurren artean literatura zaletasuna pizteko Kontuleku abiatuko dute Bermeon**

GARA - BERMEO

Haurren artean literaturarekiko zaletasuna pizteko Kontuleku ekimena jarriko du martxan Bermeoko Udal Liburutegiak. 3 eta 6 urte arteko hurrei zuzenduta, liburuekiko maitasuna sustatzeaz gain, ahozko literaturaren eta irudimenaren munduari esker, umeen eta gurasoen arteko harremanak sendotu nahi dira ekimenaren bitartez.

Kontuleku urriaren 23tik abenduaren 18ra egingo da Udal Liburutegian, asteazkenero. Talde bi antolatuko dira: alde batetik, 3 eta 4 urteko haurren taldea (17.00-18.00), eta, bestetik, 5 eta 6 urtekoena (18.00-19.00). Talde bakoitzean zortzi umek parte hartu ahal izango dute guraso batekin.

Liburutegiko arduradunek azaldu dutenez, landuko diren alorren artean daude afektibitatea, psikomotrizitatea, estimulazio goiztiarra eta harremanak, besteak beste. «Gurasoek beren seme-alabekin bizipenak partekatzeko hainbat baliabide aurkituko dituzte espazio honetan: soinu jolasak, jolas lirikoak eta antzerkia», gaineratu dute.